

## HISTORIA TXATALAK

Fundadoriaren  
etxea

>Kale Barriako 10 zenbakidun etxea da argazkikoa. Garai batean *Fundadoriarena* bezala ezagutzen zena, bertan jaio zelako XV. mendeko bigarren erdian Oñatik historian izan duen pertsonairik ospetsuenetako bat: Rodrigo Mercado Zuazola mezenas eta apezpiku famatua, Sancti Spiritus unibertsitatearen eta parrokiako klaustroaren fundatzailea, besteak beste.

Ateburuan ageri den armarría hainbat lekutan ikus daiteke, hala nola, parrokiako klaustroan eta Zuazola beraren kapillan, nahiz unibertsitateko kanpoaldean eta barrualdean. Gogoratu, 1960. hamarkadararte Kale Barria bera ere Zuazola kalea izan zela.

Gerora, XX. mende hasieran Sukiatarrek Txarriduna jatetxe ospetsua jarri zuten etxe horretan bertan.

## Uribarri

> Jerardo Elortza

Auzo honek ere badu, ba, zer azpimarratu. Orain lurrez txiki samarra den arren, XX. mendearren hasierara arte hedadura askoz handiagoa zeukan, gaur egungo Arantzazu auzoa Uribarri barruan sartzen baitzen. Erdi Aroaz geroztik agertzen zaigu Oñatiko paper zaharretan, Murgia auzoarekin batera **goiko leinuaren kokaleku nagusi** bezala, hau da, **Oiñaztarrren bandoarena**. Ganboatarrak, aldiz, herriko beheko aldean zuten euren gotorlekua: Torre-uzo, Garibai, Zubillagako lurretan.

Aloña mendilerroaren iparmalda aldapatsuaren zati batean zabaltzen da gehienbat Uribarri edo Urubarri, oñatieraz esaten dugun legez. Ez da, agian, nekazaritzarako tokirik aproposenetakoa, soro asko pendizean dituelako, batzuetan goragotik jausitako haitzen oztupoekin, eta gainera paraje ainube samarra delako. Hala ere, **Oñatiko baserri historiko batzuk hemengoak ditugu**: Otadui, Urtzelai, Gogordo, Baltategi, Datustegi, Urteaga, Sagastizabal, Azkarra, Erostegei edota Soraluze.

Uribarritarrek labrantzan ez ezik, artzaintzan ere aritu ziren luzaroan. Ez Urbiako zelai klasikoetan, Domingo Agirreren *Garoa* nobelan adierazten den

## AUZORIK AUZO

**Oñatiko  
baserri  
historiko  
batzuk auzo  
honetakoak  
ditugu**

moduan, Eskista, Duru, Lizartza eta Belar aldeko larreetan baino. Inguru horietako kortak eta txabolak ez zegozkien auzo honetakoei bakarrik, baina, hurbiltasuna dela eta, bertakoak genituen Aloñaziarren eta Durun ibiltzen ziren artzainetarik asko. Azken hamarkadotan **ostalaritzak ere garrantzia aipagarria edukitu eta dauka** hemen: Txopekua jatetxe-sagardotegiak luzaroan, eta orainago Urteagain eta Soraluze jatetxeak.

Pertsonaia ospetsuak jaio edota bizi izan ziren Uribarrin: adibidez, 1469an Arantzazuko Ama Birjinaren irudia aurkitu zuen **Errodrigo Baltategiko**, zorioneko artzaina; XIX-XX. mendeetan auzo-eskolako maisu gogoangarriak izan ziren **Pedro Migel Galarraga** eta **Felipe Jausoro**; txirrindularitzan 1930eko hamarkadan nabarmendu ziren Banastagingo **Klaudio Leturiaga** eta Soraluzeko **Gregorio Idigoras**, hogeita hamar urte geroagoko Jose Antonio Mur ahazteke; eta gazte samar joan zitzaizkigun bi bertsolari fin ere eman zizkigun Uribarririk 1970 aldera: Gogordoko **Andres Kortabarría** eta Urtzelaiako **Emilio Urtzelai**.

Uribarriko ermita San Andres apostoluaren izenaren jabe da. Antzinako irudi batzuk gordetzen ditu, nahiz eta pare bat Donostiako Elizbarrutiko Museora eraman ziren duela zenbait urte: XIV-XV. gizaldiko Andra Mari bat eta XVII.eko beste San Pedro bat. Ermitaren aurrean, Arantzazurako errepidearen bestaldean, santutxo bat egon zen orain dela gutxira arte, goraxeago, Basaizpe-Konkena baserriaren parean, mantentzen denaren antzekoa.



## MODA BEREZIA

Kale Barria, 12  
Tel. Faxa: 943 71 62 40

## CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haztendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: [inkorta@teletel.es](mailto:inkorta@teletel.es)